



TOLOSAKO  
UDALA

## **APARTEKO OSOKO BILKURA**

**2019.04.29**

Tolosako Udaletxean, 2019ko apirilaren 29an, 14:00etan, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da Aparteko Osoko Bilkura egiteko. Mahaiburu Korporazioko alkate-lehendakari Olatz Peon Ormazabal izan da eta ondorengo gaia aztertzeko udal batzarkide hauek agertu dira:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:  
Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegi Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia

Bertaratu ez diren zinegotziak:

Ibai Iriarte San Vicente  
Lore Agirre Zipitria  
Onintza Lasa Arteaga  
Igor Ezenarro Balda  
Pedro Manuel Etxabe Zabala

Idazkaria:  
Begoña Garmendia Vazquez

Kontuhartzailea:  
Ainhoa Molinos Zubiaurre

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 14:00 horas del día 29 de abril de 2019, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión extraordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre el punto del orden del día que se relaciona:

Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Kristina Pelaez Errazkin  
Cristian Fernandez Susin

### **Eguneko gaia zerrenda**

1. 2019-2020 ikasturteko prezio publikoen (Musika eskola, Kultur tailerrak eta Euskaltegia) hasierako onarpena.
2. Zozketa, hauteskunde-mahaietako

### **Orden del día**

1. Aprobación inicial de los precios públicos de la Escuela de Música, de los talleres culturales y del Euskaltegi para el curso 2019-2020.
2. Sorteo para la composición de las



TOLOSAKO  
UDALA

kideak izendatzeko Udal Hauteskundeetarako, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako eta Europar Parlamenturako 2019ko maiatzaren 26an egingo diren hauteskundeetarako.

mesas electorales para las Elecciones Municipales, a Juntas Generales y al Parlamento Europeo a celebrarse el día 26 de mayo de 2019.

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

- 1 2019-2020 ikasturteko prezio publikoen (Musika eskola, Kultur tailerrak eta Euskaltegia) hasierako onarpena.**
- 1. Aprobación inicial de los precios públicos de la Escuela de Música, de los talleres culturales y del Euskaltegi para el curso 2019-2020.**

Parte-hartzeak:

Begoña Tolosa Mendia A.k, Ogasun batzordeburuak azalpenak eman ditu Batzorde Informatiboak onartutako irizpenari buruz, beste batzuen artean:

- Proposamenean jaso da Euskaltegiko matrikula ez ordaintzeko egoera berribat, hain zuzen RGI kobratzea.
- Musika Eskolako prezioei dagokienez, irizpenean akatsa dago 7. orrian: 377,77 €kokopurua da da, 372 € ordez.
- Ondoren, irizpenaren puntuak banan-banan aurkeztu ditu, argibideak emanez.

Iñaki Irazabalbeitia Fernandez J.k (EHBildu), Euskaltegiko prezio publikoei buruz azalpen bat egin du: *Orain arte, Tolosako ikasleek "a priori" (aurretiazko) bonifikatzeko sistema zeukaten, orain "a posteriori". Beraz, gerta daiteke 1. urteko laguntza jaso gabe egon eta 2. urtekoa ordaindu behar izana. Arin ibiltzeko eskatzen du, bestela kaltea izango da, ekar lezake kurtso berrian ez matrikulatzekoa.*

Plenoko kideek ondorengo irizpena aztertu eta bozkatu dute:

## **OGASUN BATZORDEKO 2019KO APIRILAREN 17KO IRIZPENA**

Zenbateko guztiei martxoko urtearteko KPIa aplikatzea diktaminatu da, hau da, %1,55a.

### **EUSKALTEGIA**

Euskara sailak Euskaltegiko prezio publikoak eta aplikazio arauak aldatzea proposatu du. Orain arte, B1 maila bitartekoei ARIAN liburua euskaltegitik erosten zitzairen, baina horrek 0900.220.00.335.20 (3464) partidaren duen eraginagatik, ikasleek liburua haien kargura erostea eta beraz, maila horiei dagokien kuota aldatzea proposatu da.



TOLOSAKO  
UDALA

Bestalde, eta taulan ikus daitekeen bezala, 4. puntuan *“Egunean 2 ordu, astean 6, 9 hilabete”* jartzen duen lekuan, *“Astean 6 ordu, 9 hilabete”* jarri beharko luke, aurreko ikasturtean hiru egunetan 2 ordu eta 2 egunetan 3 ordu jasotzen dituzten ikasleak dauzkagulako, C2 taldea atera zelako.

Bestalde, Aplikazio Arauak aztertuta, aldaketa txiki batzuk egitea proposatu da:

a) 2. puntuan euskarazko eta gaztelarazko bertsioak ezberdinak ziren:

*“2. Ordaintzeko beharra eskolak hasi bezain azkar sortzen da.*

*Matrikulatzeko ezinbesteko baldintza da aurrez ordainduta edukitzea aurreko urteko matrikula.”*

*“2. La exacción se considerará devengada en el momento de formalizarse la matrícula.*

*Será condición inexcusable para matricularse el haber satisfecho previamente la cuota del curso anterior.”*

**Proposamena:**

*“2. Ordainarazpena matrikula matrikula egiterakoan sortuko da.*

*Matrikulatzeko ezinbesteko baldintza da aurrez ordainduta edukitzea aurreko urteetako kuota guztiak.”*

*“2. La exacción se considerará devengada en el momento de formalizarse la matrícula.*

*Será condición inexcusable para matricularse el haber satisfecho previamente todas las cuotas de cursos anteriores.”*

b) 5. atalaren 1. puntuaren aldaketa proposatzen da.

Gaur egun honela dago puntua:

5.-Matrikularik ez dute pagatu beharko matrikula egin baino 15 egun lehenago Tolosan erroldatuta egoteaz gain, jarraian aipatutako beste baldintza hauetakoren bat betetzen dutenek:

1. Familia unitateko kide bakoitzak urteko batez beste 10.302,60 euroko diru sarrera gordina ez jasotzea.

5º No tendrán que pagar la matrícula aquellas personas que, además estar empadronados/as en Tolosa con una antelación mínima de 15 respecto del día de la matrícula, cumplan alguno de los siguientes requisitos:

2. Que la media de los ingresos brutos anuales por cada miembro de la unidad familiar no supere 10.302,60 euros.

**Proposamena:**

*“5.-Matrikularik ez dute pagatu beharko matrikula egin baino 15 egun lehenago Tolosan erroldatuta egoteaz gain, jarraian aipatutako beste baldintza hauetakoren bat betetzen dutenek:*



3. *LAGS jasotzen aritzearen LANBIDEk emandako ziurtagiria*"

*"5º No tendrán que pagar la matrícula aquellas personas que, además estar empadronados/as en Tolosa con una antelación mínima de 15 respecto del día de la matrícula, cumplan alguno de los siguientes requisitos:*

4. *Certificado de LANBIDE de estar recibiendo la RGI*"

Proposamenak aztertu ondoren, ahobatez aldaketa hauek guztiak onartzea diktaminatu da.

Beraz, 2019-2020 ikasturterako euskaltegiko prezio publikoen kopuruak eta aplikazio arauak honela geratzen dira:

EUSKALTEGIA	2018-2019	2019-2020
<b>1.- Egunean 2,5 ordu, astean 10, 9 hilabete.</b>		
Matrikula	414	420,42
Materiala		
B2 maila	33	33,51
C1 maila	46	46,71
<b>2.- Egunean 2 ordu, astean 8, 9 hilabete.</b>		
Matrikula	333	338,16
Materiala		
B2 maila	27	27,42
C1 maila	45	45,70
<b>3.- Modulu konbinatuak. Astean 8 ordu, 9 hilabete: 5 ordu aurrez-aurrez</b>		
Matrikula	231	234,58
Materiala		
B2 maila	27	27,42
C1 maila	45	45,70
<b>4.- Astean 6 ordu, 9 hilabete.</b>		
Matrikula	258	262,00
Materiala		
B2 - alfabetatzen	19	19,29
C1 maila	32	32,50
C2 maila		174,67
<b>5.- Egunean 2,5 ordu, astean 5 ordu, 9 hilabete.</b>	207	210,21
Materiala, HABEren azterketak prestatzeko taldeak.		
B2 - alfabetatzen	16	16,25
C1 maila	27	27,42
C2 maila	144	146,23
<b>6.- Egunean 2 ordu, astean 4, 9 hilabete.</b>		
Matrikula	169	171,62
Materiala		



B2 maila	16	16,25
C1 maila	22	22,34
<b>7.- Autoikaskuntza</b>		
Ikasturte osoa, matrikula A1- A2 - B1mailak		621,49
Ikasturte osoa, matrikula eta materiala barne. B2-C1 mailak	647	657,03
Ikasturtearen zatia, tutoretzako, matrikula eta materiala barne.	40	40,62
<b>8.- Bestelako moduluak, orduko.</b>	1,2	1,22
Materiala	0,09	0,09

### APLIKAZIO ARAUAK

1.- Udalaren esku dago tarifatua ez diren ikastaroak antolatzea eta dagozkien prezio publikoak ezartzea.

2. Ordainarazpena matrikula matrikula egiterakoan sortuko da.

Matrikulatzeko ezinbesteko baldintza da aurrez ordainduta edukitzea aurreko urteetako kuota guztiak.

3.- **ORDAINKETA EPEAK:**

3.1. Ikaslea **Tolosan erroldatuta** badago matrikula egin baino 15 egun lehenago gutxienez, ikasturte arrunta bi eratarik ordaindu ahal izango da:

- Epe bakarrean: matrikula osoa eta, hala badagokio, materiala, eskolak hasi eta astebeteko epean beranduenik.

- Bi epeetan:

\* Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen:

Aurrez aurreko eskoletan eta modulu konbinatuetan ikasleek matrikularen % 25 (B2 arte), % 50 (C1) edo % 75 (C2) ordaindu beharko dute.

Autoikaskuntzaren kasuan, prezio publikoaren % 25 ordaindu behar da.

\* Bigarren epea: ekainaren 30a baino lehen, falta den portzentaia.

### NORMAS DE APLICACIÓN

1º El Ayuntamiento se reserva la posibilidad de organizar cursos o cursillos diferentes a los establecidos en el apartado de las tarifas y de establecer los correspondientes precios públicos.

2º La exacción se considerará devengada en el momento de formalizarse la matrícula.

Será condición inexcusable para matricularse el haber satisfecho previamente todas las cuotas de cursos anteriores.

3º **ABONO DE LA MATRICULA:**

3.1. En caso de **estar empadronado/a** en Tolosa con una antelación mínima de 15 respecto del día de la matrícula. El abono del importe del curso ordinario podrá efectuarse de dos formas:

- En un único plazo: el importe total de la matrícula y, en su caso, el material, en el plazo máximo de una semana desde el inicio del curso,

- En dos plazos:

\* Primer plazo: antes del 15 de noviembre:

En los cursos presenciales y en los módulos combinados, tendrán que pagar el 25 % (hasta B2), el 50 % (C1) o el 75 % (C2).

En el curso de autoaprendizaje se deberá abonar el 25 % del precio público.

\* Segundo plazo: antes del 30 de junio, el resto del porcentaje del precio público.



TOLOSAKO  
UDALA

### 3.2 Ikaslea Tolosan **errolatuta ez badago**:

3.2.1 Ikasturte arrunta bi eratara ordaindu ahal izango da:

- Epe bakarrean: matrikula osoa eta, hala badagokio, materiala, eskolak hasi eta astebeteko epean beranduenik.

- Bi epetan:

\* Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen, matrikularen 2 heren eta, hala badagokio, materiala.

\* Bigarren epea: abenduaren 15a baino lehen, matrikularen azken herena.

3.2.2 Autoikaskuntzako ikastaroa bi eratara ordaindu ahal izango da:

• Epe bakarrean: prezio publiko osoa eskolak hasi eta astebeteko epean beranduenik.

• Hiru epetan:

\* Lehen epea: azaroaren 15a baino lehen, prezio publikoaren erdia.

\* Bigarren epea: abenduaren 15a baino lehen, prezio publikoaren laurdena.

\* Hirugarren epea: urtarrilaren 15a baino lehen, prezio publikoaren azken laurdena.

3.3. Alkateak gehitu eta luza ditzake ordainketa egiteko epeak kasu berezietan, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordearen eskariz.

3.4. Gainontzeko ikastaroak epe bakarrean eta ikastaroa hasi aurretik ordaindu beharko dira.

3.5. Matrikula egiterakoan ikasleek kontu korrontea eman beharko dute ordainketa helbideratzeko.

### 3.2 En caso de **no estar empadronado/a** en Tolosa:

3.2.1. El abono del importe del curso ordinario podrá efectuarse de dos formas:

• En un único plazo: el importe total de la matrícula y, en su caso, el material, en el plazo máximo de una semana desde el inicio del curso.

• En dos plazos:

\* Primer plazo: antes del 15 de noviembre, dos tercios de la matrícula y, en su caso, el material.

\* Segundo plazo: antes del 15 de diciembre, el tercio restante de la matrícula.

3.2.2 El curso de autoaprendizaje se podrá pagar de dos maneras:

• En un único plazo: el importe total del precio público en el plazo máximo de una semana desde el inicio del curso.

• En tres plazos:

\* Primer plazo: antes del 15 de noviembre, la mitad de la matrícula.

\* Segundo plazo: antes del 15 de diciembre, una cuarta parte de la matrícula.

\* Tercer plazo: antes del 15 de enero, la otra cuarta parte de la matrícula.

3.3. La Alcaldía podrá, según sea el caso, prorrogar o ampliar los plazos para el abono de las tarifas, a propuesta de la Comisión informativa de Política Lingüística y Educación.

3.4. El abono de la matrícula del resto de los cursos se efectuará en un único plazo antes del inicio del cursillo.

3.5. Al matricularse deberán aportar



4. Azaroaren 30a baino lehen baja eskatzen dutenek eskubidea izango dute ikastaroaren gainerako kuotak ez ordaintzeko, baldin eta baja nahitaezko arazoirenen batek eragin badu. Erabakia alkateari dagokio, aurrez Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeak aldeko diktamena eman ondoren.

5.-Matrikularik ez dute pagatu beharko matrikula egin baino 15 egun lehenago Tolosan errolatuta egoteaz gain, jarraian aipatutako beste baldintza hauetakoren bat betetzen dutenek:

- *LAGS jasotzen aritzearen LANBIDEk emandako ziurtagiria.*
- Eskaera egiten dutenak betetzea gizarteratzeko eta diru sarrerak bermatzeko euskal sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak. Kasu honetan, materialaren kopurua ere ez dute ordaindu beharko.

- Familia ugariaren txartela eguneraturik edukitzea.

Atal honetan jasotakoaz baliatu nahi dutenek Udalean aurkeztu beharko dituzte eskatutako datu eta dokumentu guztiak eta hauek egiaztatzeke egin behar diren azterketa guztiak onartu beharko dituzte.

Datuak eta dokumentuak urteko edozein momentutan azter daitezke.

Hala ere, hurrengo ikasturteetan baldintza beretan matrikulatu ahal izateko baldintza hauek bete beharko dituzte:

+ Aurrez aurreko eta modulu konbinatuetakoa ikasleak: ikastaroa amaitu eta ikasturtean gutxienik % 85eko asistentzia izatea. Eskolara joan ez izana zuzitzeko, gaixotasun-ziurtagiriak baino ez dira onartuko. Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduaz irakaslearen

el nº de la cuenta corriente a fin de domiciliar el recibo.

4º Quienes soliciten la baja antes del día 30 de noviembre tendrán derecho a no abonar las restantes cuotas del curso, siempre y cuando la baja se produzca por motivo de fuerza mayor. La decisión corresponderá a la Alcaldía, previo dictamen favorable de la comisión de Política Lingüística y Educación.

5º No tendrán que pagar la matrícula aquellas personas que, además estar empadronados/as en Tolosa con una antelación mínima de 15 respecto del día de la matrícula, cumplan alguno de los siguientes requisitos:

- Certificado de LANBIDE de estar recibiendo la RGI.
- Que las personas solicitantes acrediten cumplir los requisitos para el acceso a alguna de las prestaciones económicas del sistema vasco de garantía de ingresos e inclusión social. En este caso, tampoco tendrán que abonar el importe del material.
- Que estén en posesión de la tarjeta de familia numerosa vigente

Quienes deseen beneficiarse de lo previsto en este apartado deberán presentar en el Ayuntamiento cuantos datos y documentos les sean solicitados y deberán aceptar cuantas indagaciones se entiendan pertinentes, en orden a la comprobación de los datos y documentos aportados.

Estas indagaciones podrán realizarse en cualquier momento del año.

Para poder matricularse en los siguientes cursos en las mismas condiciones, deberán cumplir con los siguientes requisitos:

+ En los cursos presenciales y en los módulos combinados: finalizar el curso y acreditar una asistencia mínima a clase durante el curso de un 85 %. Sólo se aceptarán como justificantes de inasistencia los certificados de enfermedad. Realizar



TOLOSAKO  
UDALA

aldeko agiri sinatua ekartzea.

+ Autoikaskuntzako ikasleak: ikastaroa amaitu eta aurrez aurreko zein autoikaskuntzak dituen lau ataletan % 85eko parte hartzea izatea ( tutoretza, mintzapraktika, multimediararen erabilera eta etxeko lanak). Maila bakoitzari dagozkion azterketa guztiak egin eta ikaslearen errendimenduz irakaslearen aldeko agiri sinatua ekartzea.

Baldintza horiek euskaltegiko zuzendariak sinatutako agirien bidez zuritu beharko ditu.

6.- Taulan azaltzen diren ikastaroak eskainiko dira, beti ere, alde zuzenetik HABEK onartutakoak badira.

todos los exámenes correspondientes a cada nivel y disponer del informe favorable del profesorado sobre el rendimiento del alumnado.

+ El alumnado de autoaprendizaje: finalizar el curso y acreditar una participación mínima del 85 % en los cuatro apartados del curso de auto-aprendizaje (tutoría, expresión oral, uso del sistema multimedia y trabajos personales). Realizar todos los exámenes correspondientes a cada nivel y tener el informe favorable del profesorado sobre el rendimiento del alumnado.

El cumplimiento de estos requisitos se justificará mediante certificado de la dirección del Euskaltegi.

6º Se ofrecerán los cursos señalados en la tabla siempre y cuando hayan sido aprobados previamente por HABE.

## **MUSIKA ESKOLA**

Kultura, Festak eta Gazteria zerbitzuak Musika eskolako prezio publikoen tarifak eta aplikazio arauak aldatzea proposatu du.

Azken urtetatik hona (2010etik) jarrita dauden tarifak aztertu dituzte eta bi tarifen aldaketa egin behar litzatekela ikusi dute. Hauek dira:

a.) “4. Mailako Instrumentu + Taldea” izena duena.

Tasa hau sortu zenean eskaintzen zen instrumentuko klase denbora ordubeteko izaten zen baina ikaslearen eskaerak gehiagotu direla eta, klase denbora hori egokitu eta murriztu egin da, kontutan izanik “Hasiera” eta “Gotortze” Mailako ikasleek (2. eta 3. Mailak hain zuzen) lehentasuna daukatela instrumentua ikasteko. 4. Mailako ikasleek lehentasunezko jardura taldea izaten dute, eta plazarik libre geratuko balitz, instrumentu klasea hartzeko aukera daukate.

Orain arte “4. Mailako Instrumentu + Taldea”ren tarifa, “3.maila osagarririk gabe”ko tarifaren berdina da, hots 467€koa, bi maila horien ikastordu kopuru berdina bait da.

Orain berriz “4. Mailako Instrumentu + Taldea”ren ikastordu kopurua murriztu ondoren “2. Maila solfeorik gabe” ikasgaiko kopuru berdina da, 45 minutuko instrumentu klase denbora hain zuzen.

Beraz, ordu kopuru berdina badute, tarifa ere berdina izan beharko lukete, hau da, 372€koa.

b) “Informatika musikala”.

Eskaera berriak jasotzen hasi dira, Ikasleak teoriako ikasgaietan sakontzeko gogoarekin datoz (armonia, analisia..) eta ez dago ikasgai horietarako tarifarik. Prezioa “informatika musikala”ren berdina izango denez, egokiena izena aldatzea iruditu zaie.



**PROPOSAMENA:**

- a.) "4. Mailako Instrumentu + Taldea" ko tarifa 467€tik 377,77€ko tarifara aldatzea. Honek ikasle goaren %5ean izango du eragina.
- b.) "Informatika musikala" tarifari izena aldatzea eta "ikasgai teorikoak" deitzea.
- c.) aplikazio arauak aldatzea, matrikularen berritze automatikoa ezarriz eta baja egoerak zehaztuz.
- d.) Prezioen igoera KPIaren arabera.

Proposamena aztertu ondoren, ahobatez aldaketa hauek onartzea diktaminatu da.

Beraz, 2019-2020 ikasturterako Musika Eskolako publikoen tarifak eta aplikazio arauak honela geratzen dira:

	MUSIKA ESKOLA ZERBITZUA	SERVICIO ESCUELA DE MUSICA	TARIFA OROKORRA (General) 2018-2019	TARIFA TOLOSA 2018-2019	TARIFA (General) 2019-2020	TARIFA TOLOSA 2019-2020
A)	Musika eskola	Escuela de Música:				
	1.maila	1º nivel	281	188	285,36	190,91
	2.maila	2º nivel	841	558	854,04	566,65
	2.maila solfeorik gabe	2º nivel sin solfeo	557	372	565,63	377,77
	3.maila	3º nivel	1008	674	1023,62	684,45
	3.maila, osagaririk gabe	3º nivel, sin complementaria	701	467	711,87	474,24
	4.maila	4º nivel:				
	a) Musika taldea	a) Conjunto musical	140	94	142,17	95,46
	b) instrumentua + musika taldea	b) instrumento + conjunto musical	701	467	565,63	377,77
	Ikasle errefortzatuak	Alumnos reforzados	1289	861	1308,98	874,35
	Ikasgai teorikoak	Asignaturas teóricas	281	188	285,36	190,91
	Bigarren instrumentua	Segundo instrumento	281	188	285,36	190,91

**APLIKAZIO ARAUAK**

1. TOLOSA tarifak matrikulazio epearen amaiera baino bi hilabete lehenagotik Tolosan erroldatuta dauden herritarrei aplikatuko zaizkie.

Tolosaldean erroldatutakoei ere aplikatuko zaizkie, betiere jatorrizko udalek tolosarrei ere beren herritarrei aplikatzen dizkieten tarifak aplikatzen badizkiete musika eskolari dagokion

**NORMATIVA DE APLICACIÓN**

1. Las tarifas TOLOSA se aplicarán a las personas empadronadas en Tolosa con dos meses de antelación respecto a la fecha fin del período de matriculación.

También se aplicarán a las personas empadronadas en Tolosaldea, siempre que los correspondientes municipios también apliquen a las personas empadronadas en Tolosa las



eranskin honetako zerbitzu guztietan.

mismas tarifas que aplican a su ciudadanía en todos los servicios de este anexo correspondiente a la escuela de música.

2. Prezio publiko honen sortzapena matrikula egiterakoan, edo berritze automatikoarekin, sortuko da.

2. Este precio público se devenga al realizar la matrícula o en el momento de su renovación automática.

Aurreko ikasturtea amaitu aurretik, hurrengo ikasturterako matrikulazio epealdia zabalduko da. Behin matrikulatuz gero, ikaslea hurrengo ikasturteetarako matrikulatuta dagoela ulertuko da, ikasleak UDATEn, dagokion formularioa bete eta kontrakorik jakinarazi ezean. Ez jarraitzeko jakinarazpena aurreko ikasturtearen amaieraren aurretik egin behar da, hau da, maiatzaren 31ren aurretik. Hala egiten ez badu, udalak dagokion matrikularen ordainarazpena jaulkiko dio ikasleari.

El plazo de matrícula para el siguiente curso se abrirá antes de la finalización del curso. Una vez hecha la matrícula, se entenderá que el alumno está matriculado para los cursos siguientes, salvo que el alumno indique lo contrario rellenando el correspondiente cuestionario en UDATE. La notificación de no continuidad se debe hacer antes de la finalización del curso, o sea, antes del 31 de mayo. En caso contrario, el Ayuntamiento emitirá la correspondiente exacción de matrícula al alumno.

Matrikulatzeko, beharrezkoa izango da aurreko ikasturteetako kuota guztiak ordainduta edukitzea.

Para matricularse, será necesario tener abonadas todas las cuotas de cursos anteriores.

### 3. ORDAINKETA.

Matrikularen zenbateko osoa hiru alditan ordainduko da:

- %60 matrikula egiteko unean, edo berritze automatikoarekin batera, uztailean. (1. kuota)
- %20 azaroaren 15etik 30era (2. kuota)
- %20 otsailaren 1etik 15era (3. kuota)

### 3. PAGO.

El pago del importe completo de la matrícula se realizará en tres plazos:

- El 60 %, al matricularse o al momento de la renovación automática, en julio (1.ª cuota)
- El 20 %, entre el 15 o el 30 de noviembre (2.ª cuota)
- El %20, entre el 1 y el 15 de febrero (3.ª cuota)

Matrikularen lehen ordainketa soilik itzuliko da matrikula deuseztatzeko arrazoia Tolosako Udala Musika Eskolari egotz dakiokenean.

El primer pago de la matrícula solo se devolverá cuando la causa de anulación de la matrícula sea atribuible a la Escuela de Música.

Matrikula deuseztatzeko eskaera egin daiteke ondorengo arrazoiengatik, baina edozein dela ere arrazoia, prezio publikoaren %20 ez da itzuliko.

Se puede solicitar la anulación de la matrícula por los motivos siguientes, pero, sea cual sea el motivo, no se devolverá el 20 % del precio público.

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko arrazoiak:

Motivos para que el alumno suspenda el pago de la matrícula o solicite su devolución:

- Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, eskolara joateko ezintasun larria duela adieraziz.
- Haurdunaldia, medikuaren txostenak erabateko atsedena hartu behar duela baldin badio.
- Enfermedad, con certificado médico que indique incapacidad grave para acudir a la escuela.
- Embarazo, si informe médico prescribe reposo total.



- Amatasuna.
- Ikasketa arautu edota homologatuen derrigorrezko lekualdaketak eta aldaketak, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.
- Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...), beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.
- Salbuespen gisa, kontuan izango dira epez kanpoko baja eskaerak, baldin eta eskatzaileak klase bat bera ere ez duela jaso ziurtatzen bada.
- Maternidad.
- Traslados o modificaciones obligadas de los estudios reglados u homologados, siempre que se certifiquen por medio de documentos.
- Situaciones extraordinarias en el ámbito laboral (traslados, despidos...), siempre que se certifiquen por medio de documentos.
- Excepcionalmente, las solicitudes de baja hechas fuera de plazo se tendrán en cuenta si se certifica que la persona solicitante no ha asistido ni a una sola clase.

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko epeak:

- 1. kuotaren itzulpena ikasturtea hasi aurretik eskatu beharko da.
- 2. eta 3. kuota ez ordaintzeko eskaera, bakoitzaren ordainketa epearen aurreko hilabetea, hau da: urriaren 15a eta urtarrilaren 1a.

Arrazoi horiek direla-eta egiten diren eskaerak Udal Musika Eskolako Zuzendaritzak aztertu eta bidezko txostena emango du kuoten itzulpena edo bertan behera uztea baimendu edo ez proposatuz, eta Alkateak ebatziko ditu.

#### 4. HOBARIAK

4.1. Familia ugariak %50eko hobaria dute. Hobari hauetaz gozatzeko, subjektu pasiboak eskatu egin behar du, eta, aldi berean, honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Tolosaldean erroldatuta egotea
- Matrikulatzen den ikasturearen aurreko maiatzaren 31ean familia ugariaren izaera edukitzea.
- Tramiteak errazteko, eskaera ez da urtero egin behar izango.

Hala eta guztiz ere, subjektu pasiboa behartuta dago hobari horren baldintza eta betekizunen inguruan gerta daitezkeen aldaketen berri ematera, eta aldaketa horiek nolana ere,

Plazos para la suspensión de pagos o la solicitud de la devolución del importe de la matrícula:

- La devolución de la primera cuota deberá solicitarse antes del comienzo del curso.
- La solicitud de no abonar las cuotas 2.<sup>a</sup> y 3.<sup>a</sup>, el mes anterior al plazo de pago de cada una de ellas, o sea, el 15 de octubre y el 1 de enero.

Las solicitudes realizadas por dichos motivos serán examinadas por la Dirección de la Escuela de Música Municipal, que emitirá el correspondiente informe proponiendo admitir o denegar las solicitada devolución de cuotas o suspensión del pago, y será la Alcaldía quien las resuelva.

#### 4. BONIFICACIONES

4.1. Tendrán una bonificación del 50 % las familias numerosas.

El disfrute de esta bonificación requerirá la previa solicitud del sujeto pasivo, y el cumplimiento de las siguientes condiciones:

- Estar empadronado en Tolosaldea
- Ostentar la condición de familia numerosa a 31 de mayo del año de inicio del curso al que se matricula.
- Para la simplificación de los trámites no será necesaria la renovación anual de las solicitudes.

No obstante, el sujeto pasivo está obligado a comunicar las variaciones que se produzcan en ellas condiciones y requisitos de esta bonificación y que, en todo caso, surtirán



TOLOSAKO  
UDALA

gertatu diren ekitaldian ez, hurrengoan izango efektos a partir del ejercicio siguiente en que se dute eragina. hayan producido.

Administrazioak beretzat gordetzen du hobaria La Administración se reserva el derecho de onartu eta emateko behar diren baldintzak comprobar de oficio el cumplimiento de los betetzen diren ala ez ofizioz egiaztatzeko requisitos necesarios para el otorgamiento y eskubidea, eta subjektu pasiboak hobaria concesión de la bonificación y de requerir la eskuratzeko eskubidea duela egiaztatzeko presentación de cuantos documentos sean behar diren agiri guztiak aurkez daitezen necesarios para acreditar el derecho del sujeto eskatzekoa ere bai. pasivo a la bonificación.

4.2. Eskaera egiten dutenei, baldin eta Tolosa 4.2. Tendrán una bonificación del 80 % las erroldatuta badaude eta Gizarteratzeko eta personas que reúnan los requisitos económicos Diru- sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak para las prestaciones ofrecidas por el Sistema eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza Vasco de Garantía de Ingresos y estén ekonomikoak betetzen baditu, %80ko hobaria empadronadas en Tolosa. edukiko dute.

## KULTUR TAILERRAK

Kultura, Festak eta Gazteria zerbitzuak Kultur tailerreko prezio publikoen tarifak eta aplikazio arauak aldatzea proposatu du:

Tolosako udala herritarrekiko harremana hurbildu eta erraztearren hainbat neurri hartzen ari da, arreta zerbitzuaren berrikuntza eta bertan beste gunek batzuetan egiten ziren tramiteak zentralizatzea, besteak beste.

Hauetaz gainera, tramitazioak erraztu eta hiritarrei beharrezkoak ez diren joan-etorriak saihestea bilatzen da.

Honetaz gainera, gure zerbitzuetako erabiltzaileekin dugun esperientzia zein den ikusita, baja eskatzeko arazoak zehaztu eta zerrenda osatzea beharrezkoa iruditu zaigu.

Honegatik, aurreko ordenatzekiko bi aldaketa nagusi hauek proposatzen dira:

- a.) aplikazio arauak aldatzea, matrikularen berritze automatikoa ezarriz eta baja egoerak zehaztuz.
- b.) Prezioen igoera KPlaren arabera.

Proposamena aztertu ondoren, ahobatez aldaketa hauek onartzea diktaminatu da.

Beraz, 2019-2020 ikasturterako Kultur Tailerreko prezio publikoen tarifak eta aplikazio arauak honela geratzen dira:



### 3.1.7 KULTUR TAILERRAK

	KULTUR TAILERRAK IKASTAROA	TALLERES CULTURALES CURSO	TARIFA OROKORRA (General) 2018-2019	TARIFA TOLOSA 2018-2019	TARIFA OROKORRA (General) 2019-2020	TARIFA TOLOSA 2019-2020
1.	Pintura ikastaroa.14 urtez gorakoak	Curso de pintura. Mayores de 14 años	290	193	294,50	195,99
2.	Eskulanak.6-14 urte bitartekoak	Manualidades. De 6 a 14 años.	213	142	216,30	144,20
3.	Zeramika ikastaroa, urteko	Curso de cerámica, anual	290	193	294,50	195,99
4.	Antzerki ikasturtea	Curso de teatro, anual	260	172	264,03	174,67
5.	Argazkigintza (100 ordu)	Fotografía (100 horas)	349	232	354,41	235,60
6.	Balleta	Ballet	222	147	225,44	149,28
7.	Baleta aurreratua	Ballet avanzado	291	201	295,51	204,12
8.	Balleta (puntak)	Ballet (puntas)	84	55	85,30	55,85
9.	Dantza garaikidea	Baile contemporaneo	291	201	295,51	204,12

#### APLIKAZIO ARAUAK

1.- Tarifaturako gaiei buruzko espezializazio ikastaroak antolatzeke ahalmena izango du udalak. Ikastaro horien prezioa kostuaren arabera izango da. Era berean, bestelako ikastaroak antolatzea Udalaren eskumena da. Horrelakoetan, dagozkien kostuen arabera prezio publikoak finkatuko ditu Udalak.

2.- Ikastaroak hasi aurretik matrikulazio epealdia zabalduko da. Ikasturte osoko iraupena dutenetan, ordea, behin matrikulatuz gero, ikaslea hurrengo ikasturteetarako matrikulatuta dagoela ulertuko da, ikasleak UDATEn, dagokion formularioa bete eta kontraktorik jakinarazi ezean. Ez jarraitzeko jakinarazpena aurreko ikasturtearen amaieraren aurretik egin behar da, hau da, ekainaren 30aren aurretik. Hala egiten ez badu, udalak dagokion matrikularen ordainarazpena jaulkiko dio ikasleari.

3.- Ordainarazpena matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin batera sortuko da. Matrikula egiteko nahitaezkoa da aurreko ikasturteetako kuota guztiak ordainduta edukitzea.

4.- Materialaren ordainketa zuzendaritzak berak erabakiko du nola egin.

#### NORMATIVA DE APLICACIÓN

1.- El Ayuntamiento tiene la facultad de organizar cursillos de especialización sobre las materias tarifadas, cuyo precio será en función de su coste. Así mismo, es competencia del Ayuntamiento organizar otros cursillos diferentes, en los que el Ayuntamiento fijará los precios públicos en función de los costes correspondientes.

2.- Se abrirá un plazo de matrícula antes del inicio de los cursillos, pero en los cursillos de duración anual se entenderá que el alumno está matriculado para los cursos siguientes, salvo que el alumno indique lo contrario rellenando el correspondiente cuestionario en UDATE. La notificación de no continuidad se debe hacer antes de la finalización del curso, o sea, antes del 30 de junio. En caso contrario, el Ayuntamiento emitirá la correspondiente exacción de matrícula al alumno.

3.- Este precio público se devenga al realizar la matrícula o en el momento de su renovación automática. Para matricularse, será imprescindible tener abonadas todas las cuotas de cursos anteriores.

4.- La dirección determinará la forma de pago del material.



5.- Matrikulazio aukerak eta zenbatekoa 5.- Tipos de matrícula y formas de pago:  
ordaintzeko moduak:

5.1.- Ikasturte osoa (urritik ekainera)

◆ Tarifa osoa matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin. Azaroan.

◆ Tarifa osoa bi zatitan:

- 1. kuota matrikula egiterakoan edo berritze automatikoarekin: %50. Azaroan.
- 2. kuota: %50. Urtarrilean

5.1.- Curso completo (de octubre a junio)

◆ La tarifa total en el momento de matricularse o de renovar automáticamente la matrícula. En noviembre.

◆ La tarifa total en dos plazos.

- La 1.<sup>a</sup> cuota al formalizar la matrícula o con la renovación automática: 50 %. En noviembre.
- La 2.<sup>a</sup> cuota: 50 %. En enero

5.2.- Urritik abendura: Tarifa osoaren %50

5.2.- De octubre a diciembre: 50 % de la tarifa total

5.3.- Urtarrietik ekainera: Tarifa osoaren %75

5.3.- De enero a junio: 75 % de la tarifa total

5.4.- Martxotik ekainera: Tarifa osoaren %50

5.4.- De marzo a junio: 50 % de la tarifa total

6.- Matrikula deuseztatzeko eskaera egin daiteke ondorengo arrazoiengatik, baina edozein dela ere arrazoa, prezio publikoaren %20 ez da itzuliko.

6.- Se puede solicitar la anulación de la matrícula por los motivos siguientes, pero, sea cual sea el motivo, no se devolverá el 20 % del precio público.

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko arrazoiak:

Motivos para que el alumno suspenda el pago de la matrícula o solicite su devolución:

- Gaixotasuna, betiere medikuaren egiaztagiriarekin, eskolara joateko ezintasun larria duela adieraziz.
- Haurdunaldia, medikuaren txostenak erabateko atsedena hartu behar duela baldin badio.
- Amatasuna.
- Ikasketa arautu edota homologatuen derrigorrezko lekualdaketak eta aldaketak, beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.
- Ez-ohiko egoera lan eremuan (lekualdaketak, kaleratzeak...), beti ere behar diren dokumentuekin egiaztatzen bada.
- Salbuespen gisa, kontuan izango dira epez kanpoko baja eskaerak, baldin eta eskatzaileak klase bat bera ere ez duela jaso ziurtatzen bada.

• Enfermedad, con certificado médico que indique incapacidad grave para acudir a la escuela.

• Embarazo, si informe médico prescribe reposo total.

• Maternidad.

• Traslados o modificaciones obligadas de los estudios reglados u homologados, siempre que se certifiquen por medio de documentos.

• Situaciones extraordinarias en el ámbito laboral (traslados, despidos...), siempre que se certifiquen por medio de documentos.

• Excepcionalmente, las solicitudes de baja hechas fuera de plazo se tendrán en cuenta si se certifica que la persona solicitante no ha asistido ni a una sola clase.

Ikasleak ordainketak bertan behera uzteko edo matrikularen itzulpena eskatzeko epea: abenduak 15.

Plazo para la suspensión de pagos o la solicitud de la devolución del importe de la matrícula: 15 de diciembre.



TOLOSAKO  
UDALA

Arrazoi horiek direla-eta egiten diren eskaerak Kulturaz Zerbitzuko zuzendariak aztertu eta bidezko txostena emango du kuoten itzulpena edo bertan behera uztea baimendu edo ez proposatuz, eta Alkateak ebaztuko ditu.

Las solicitudes realizadas por dichos motivos serán examinadas por el director del Servicio de Cultura, que emitirá el correspondiente informe proponiendo admitir o denegar las solicitadas devolviendo de cuotas o suspensión del pago, y será la Alcaldía quien las resuelva.

Matrikularen prezio osoa soilik itzuliko da matrikula deuseztatzeko arrazoia Tolosako Udalari egotz dakiokeenean.

El precio total de la matrícula solo se devolverá cuando la anulación de la matrícula sea atribuible al Ayuntamiento de Tolosa.

## 7.- HOBARIAK

## 7.- BONIFICACIONES

### 7.1. Familia ugariak %50eko hobaria dute.

7.1. Tendrán una bonificación del 50 % las familias numerosas.

Hobari hauetaz gozatzeko, subjektu pasiboak eskatu egin behar du, eta, aldi berean, honako baldintza hauek bete behar ditu:

El disfrute de esta bonificación requerirá la previa solicitud del sujeto pasivo, y el cumplimiento de las siguientes condiciones:

- Tolosaldean erroldatuta egotea
- Matrikulatzen den ikasturaren aurreko ekainaren 30ean familia ugariaren izaera edukitzea.

- Estar empadronado en Tolosaldea
- Ostentar la condición de familia numerosa a 30 de junio del año de inicio del curso al que se matricula.

- Tramiteak errazteko, eskaera ez da urtero egin behar izango.

- Para la simplificación de los trámites no será necesaria la renovación anual de las solicitudes.

Hala eta guztiz ere, subjektu pasiboa behartuta dago hobari horren baldintza eta betekizunen inguruan gerta daitezkeen aldaketan berri ematera, eta aldaketa horiek nolanahi ere, gertatu diren ekitaldian ez, hurrengoan izango dute eragina.

No obstante, el sujeto pasivo está obligado a comunicar las variaciones que se produzcan en ellas condiciones y requisitos de esta bonificación y que, en todo caso, surtirán efectos a partir del ejercicio siguiente en que se hayan producido.

Administrazioak beretzat gordetzen du hobaria onartu eta emateko behar diren baldintzak betetzen diren ala ez ofizioz egiaztatze eskubidea, eta subjektu pasiboak hobaria eskuratzeko eskubidea duela egiaztatze behar diren agiri guztiak aurkez daitezkeen eskatzekoa ere bai.

La Administración se reserva el derecho de comprobar de oficio el cumplimiento de los requisitos necesarios para el otorgamiento y concesión de la bonificación y de requerir la presentación de cuantos documentos sean necesarios para acreditar el derecho del sujeto pasivo a la bonificación.

7.2.- Eskaera egiten dutenei, baldin eta Tolosan erroldatuta badaude eta Gizarteratzeko eta Diru- sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak eskaintzen dituen prestazio baterako baldintza ekonomikoak betetzen baditu, %80ko hobaria edukiko dute.

7.2.- Tendrán una bonificación del 80 % las personas que reúnan los requisitos económicos para las prestaciones ofrecidas por el Sistema Vasco de Garantía de Ingresos y estén empadronadas en Tolosa.

8.- TOLOSA tarifak matrikulazio epearen amaiera baino bi hilabete lehenagotik Tolosan

8.- Las tarifas TOLOSA se aplicarán a las personas empadronadas en Tolosa con un



TOLOSAKO  
UDALA

erroldatuta dauden herritarrei aplikatuko erroldatuta dauden herritarrei aplikatuko mínimo de dos meses de antelación respect a la fecha fin del período de matriculación.

Tolosaldean erroldatutakoei ere aplikatuko Tolosaldean erroldatutakoei ere aplikatuko También se aplicarán a las personas zaizkie, betiere jatorrizko udalek tolosarrei ere empadronadas en Tolosaldea, siempre que los beren herritarrei aplikatzen dizkieten tarifak correspondientes municipios también apliquen a aplikatzen badizkiete kultur tailerrei dagokien las personas empadronadas en Tolosa las eranskin honetako zerbitzu guztietan. eranskin honetako zerbitzu guztietan. mismas tarifas que aplican a su ciudadanía en todos los servicios de este anexo correspondiente a los talleres culturales.

Aurreko guztia kontuan izanda, bertaratutako guztien aldeko botoekin, honako hau proposatzen zaio Tolosako Udaleko Udaltzako Plenoari:

**LEHENA.-** Musika eskola, Kultur tailerrak eta Euskaltegiko prezio publikoak aldatzea goran aipatzen diren kopuruekin eta aplikazio arauekin.

**BIGARRENA.-** Prezio publiko berriak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta 2019-2020 ikasturtean sartuko dira indarrean.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

**Aldeko botoak:** Olatz Peon Ormazabal, Jokin Azkue Arrastoa, Nerea Letamendia Belloso, Patxi Amantegi Zubiria, Nuria Carbonell Miranda, Iñigo Alonso Sarasibar, Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga, Begoña Tolosa Mendia, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Kristina Pelaez Errazkin eta Cristian Fernandez Susin.

Beraz, Udaltzako aho batez hasieraz onartu ditu 2019-2020 ikasturteko prezio publikoak (Musika eskola, Kultur tailerrak eta Euskaltegia).

2. Zozketa, hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko Udaltzako Hauteskundeetarako, Gipuzkoako Batzar Nagusietarako eta Europar Parlamenturako 2019ko maiatzaren 26an egingo diren hauteskundeetarako.
2. Sorteo para la composición de las mesas electorales para las Elecciones Municipales, a Juntas Generales y al Parlamento Europeo a celebrarse el día 26 de mayo de 2019.

Apirilaren eko 209/2019 Errege Dekretuaren bidez, Udaltzako Hauteskundeak, Gipuzkoako Batzar Nagusietarakoak eta Europar parlamenturako 2019ko



maiatzaren 26an egingo diren hauteskundeetarako deialdia egin zen, eta ekainaren 19ko Hauteskunde Araubide Orokorreko 5/85 Legeko 26. artikulua xedatuaren arabera, hauteskunde-mahai bakoitzeko lehendakaria eta mahaikideak izendatu behar dira zozketa publikoa eginez hauteskunde sekzio bakoitzean zentsatuta daudenen artean.

Hauteskundeetako mahaiak osatzeko kideen zozketa egiteko programa informatikoa erabili da. Hauek dira irizpideak:

Hauteskunde-mahaien eraketarako kideen izendapena gardentasun eta ausazkotasunez egiteko zozketa publikoa egingo da sistema informatikoa erabiliz, ondoren azaltzen den prozedura erabiliaz:

1. Zozketa egiteko Espainiako Estatistika Institutua erakundeak emandako hautesle zentsu osoa erabiliko da, 2018ko abenduaren 31n itxitakoa. Hautesleak 18 urte edo gehiago eta 70 urte baino gutxiago dutenak izango dira, eta idazten eta irakurtzen jakin beharko dute.

2. Zozketa egiteko Udalean sortutako datu base bat erabiliko da INEK duen CONOCE programatik haurtutako hautesle zentsu osoa erabiliz, "generación de ficheros" programaz baliatuz

3. Mahai bakoitzeko finkatuko da:

- Hautesle kopurua. Hautesle bakoitzak mahai bakar batean emango du botoa, eta bere baitan hurrenkera zenbakia dauka modu bakarrean identifikatzen duena.
- Lehendakari izateko izangai kopurua. Lehendakari izateko izangaiak hirurogeita hamar urte baino gutxiago izango ditu, Batxilergo edo bigarren mailako Lanbide Heziketa titulua izango du edo, modu subsidiarioan, Eskola Graduatu titulua edo baliokidea.
- Bokal izateko izangai kopurua. Bokala izateko izangaiak hirurogeita hamar urte baino gutxiago izan behar ditu eta idazten eta irakurtzen jakin behar du.

4. Programa honek ausazko zenbakiak sortzeko funtzioak dauzka.

5. Mahaiko kide bakoitza honela aukeratzen da, prozesu hau errepikatu egiten da izangai bakoitzeko, hautesle mahai bakoitzeko:

a) Programak ausazko zenbaki bat lortzen du hautesle zenbakiaren arabera.

b) Hurrenkera zenbakia kalkulatuta, izangaiak ondoko baldintzak betetzen ote dituen egiaztatzen da:

- Aurretiaz hautatua ez izana zozketa honetan. Izangai bakoitza modu independentean lortzen denez, litekeena da lortzen den hurrenkera zenbakia lehendik hautatua izana egotea.



TOLOSAKO  
UDALA

- Aztertu egiten da 26.2 artikuluan xedatutakoa betetzen ote den: “Mahai bakoitzeko Lehendakaria eta Bokalak zozketa publiko bidez izendatzen dira, dagokion hauteskunde-atalean zentsatuta dauden pertsona guztien artean, hauek hirurogeita hamar baino gutxiago dutenak izango dira eta idazten eta irakurtzen dakitenak.
- Lehendakariak Batxilergo titulua edo Lanbide Heziketako bigarren mailako titulua izan beharko du edo, modu subsidiarioan, Eskola Graduatu titulua edo baliokidea.

Hortaz, zozketa hau egiteko erabiliko den prozedura informatikoa etorritakoei ezagutzera eman eta gero, Udalbatzak

## ERABAKI DU

**Lehena.-** Zozketa publikoa egitea, Hauteskunde-Mahai bakoitzeko lehendakaria eta mahaikideak izendatzeko eta, bide batez, mahaiko kide bakoitzak izango dituen bi ordezkioak izendatzeko.

**Bigarrena.-** Zozketa eginda, eta emaitzen arabera, izendatzea Hauteskunde-Mahaietako kideak, idazkariak behar bezala ziurtatutako espedientean agertzen direnak.

**Hirugarrena.-** Erabakia Eskualdeko Hauteskunde Batzordeari jakinaraztea.

Besterik gabe, 14:20ean, bilera bukatutzat eman da, eta nik, idazkari naizen honek, hori guztia ziurtatzen dut, Alkateak Ontzat Emanik.

ALKATEAK  
O.E.

IDAZKARIAK